



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

GIZARTE-ONGIZATE BATZORDEKO AKTA

Eguna : 2014-12-01

Ordua : 18:30

Lekua : Batzar-gela 1

Bertaratuak: Ongizateko Batzorde burua: Rakel Elu

BILDUKo ordezkariak : Haize Badiola
Juan Ramon Iriondo

EAJko ordezkaria : M^a Dolores Etxano

ADEMBI : Nekane Landaribar

Antiguako Ama : Rosario Ducay
Rosario Urruzuno

GORABIDE : Begoña Zelaia
Inmaculada Laka

ARNASA taldeko gurasoak : Noemi Uribe
Aitzol Etxaniz

Iraitz Goenaga

GAI ORDENA:

- 1.- Aurreko aktaren onarpena.
- 2.- Taldeen azken ekarpenak eta proposamenak.
- 3.- BFArekin azaroan izandako batzarra.
- 4.- Ongizate atala herriarekin lantzeko parte hartze prozesua.
- 5.- Eskari-galderak.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Taldekilde berrien aurkezpena egiten da lehenengo, Arnasa taldea zer den, fibrosis kistikoa gaixotasuna duten pertsonak batzen duen elkarte dela eta Ondarroan halako gaixotasuna duen pertsonaren guraso lez, batzordekideak izatearen garrantzia.

Momentu honetan Gipuzkoarekin dagoen harremana azaldu da, hurbiltasunagaitik eta istoriogaitik ere.

1.- Aurreko aktaren onarpena.

Aho batez onartzen da.

2.- Taldeen ekarpenak eta proposamenak.

DANON ARTIN elkarteak urteko janari bilketa egin du eta 3000 kilo janari batu dira, iazko urtean baino gehiago.

Lokal berria preparatzen dabilta, laster aldaketa egiteko. Antiguako Ama kalean izango da, orain dutena baino haundiagoa da eta hobeto dago, batez ere elikagaien bankuarekin elkar lanean aritzea nahi bada.

ANTIGUAKO AMA elkarteko kideek, San Andres eguneko ospakizunean 86 pertsona batu zirela azaldu dute, bazkaria eta ondoren dantzaldia izan dutela eta ondo joan dela dena.

Beraien ekintzen artean, ostegunetan memoria lantzeko tailarrarekin jarraitzen dutela eta asteko beste egun batean gimnasia.

Aurtengo ekintzetatik, azkeneko Hitzaldia eta zozketa falta direla diote.

Baita, duela gutxitik sortu berri den Ondarroako Alzheimerdunen familikideen taldea ere, Antiguako Amako lokalean elkartzen dela eta egindako balorazio lez, egokia ikusten dela lokala honetarako.

GORABIDEko familiarrek, urtean behingo batzarra izan dutela Markinan azaldu dute, eskualde osoarentzako izaten dena.

Azkenik, Polioa izan duten pertsonen talde batek, Ondarroan nahiko lukeela elkarte sortu adierazi da.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

3.-BFArekin azaroan izandako batzarra.

Bizkaiko Foru Aldundiko Sergio Murillo jaunarekin egin zen batzarraren parte eman da. Alkatea, Ongizateko batzordeburua, gizarte langilea eta egoitzako zuzendaria joan zirela.

Batzar horretan tratatu ziren gaiak, egoitza, eguneko zentrua eta asunto familiar zehatz bat izan ziren.

Artibai egoitzari buruz, gaur egungo hitzarmena gehitzea eskatu zitzaion, 27 ohera; Bizkaiko egoitza guztiakin hitzartutako plazen kopurua zehazteko dagoela esan zuen Murillok eta aztertuko dutela.

Eguneko zentrua dela eta plaza gehiagoaren eskaera ere egin zitzaion. Erantzuna, plaza eskaera gehituko balitz, Foru Aldundiak plazak gehituko lituzkeela baina benetako eskaerak egon beharko direla eguneko zentroaren itxaron zerrendan.

Ondarroan dagoen Gorabideko egoitza dela eta herriko familia baten gutuna eraman zitzaion eta Murillo jaunari eman zien zuzenean udaleko ordezkariak. Honek, lehenbailehen erantzungo dietela familiari agindu zuen.

Familia honetako kidea batzarrean dagoenez, Foru Aldunditik dagoeneko deitu dietela adierazi du eta argitu dietela izan ditzaketen aukerak.

Azkenik, Gorabideko familiaek diote hemendik aurrera beraien arduraduna, M^a Elena Lapazarana izango dela.

4.-Ongizate atala herriarekin lantzeko parte hartze prozesua.

Batzordeburuak azaldu du datorren urtera begira nahi dutela herriko beharrianak, daudenak eta egon daitezkeen berriak kontuan izan.

Horretarako proposatzen da, edo taldeekin egotea herrian zer falta den aztertzeke edo herritar gehiagorengana zelan heldu aztertzeke, adibidez inkesta edo batzar irekiak egitea. Batzordekideen artean idearik balego kontuan hartzeko prest daudela.

Batzordeburuak proposatu du, ezgaitasun fisiko edo psikikoa duten umeen gurasoekin elkartzea eta euren egoera hobeto ezagutzea ondo legokeela, batez ere, Arnasa taldekoak batzordera hurbiltze honek zubi lana egin duen



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

honetan, herrian egoera berdintsuetan beste hainbat familia egon badaudela jakinda, oso bidezkoa ikusten duela. Horrela, talde horrek izan ditzakeen proposamenak eta beharrak jakiteko aukera berri bat izango genukeela batzordeak eta Udalak berak.

EAJ-ko ordezkariak dio bere ustez hobe dela interesa duten pertsonak elkartu eta beraiei zuzentzea zuzenenan.

Elkarrizketa sortu da eta pentsatu da hoberena aipatutako pertsona zein taldeengana hurbiltzea eta guzti hau azaltzea. Hurrengo Batzordean, honi buruz egindakoak azalduko dira.

Aurrerantzean ere beste idearik izanez gero, kontutan hartuko direla eta Batzordea zabalik dagoela ekarpenak jasotzeko.

5.- Eskaria-galderak.

Ez da eskari galderarik egon.

Batzarra arratsaldeko 20:30ean bukatutzat eman da eta hurrengo batzarrerako data posiblea urtarrilaren 19an adostu da (ezinezkoa ikusiko balitz, abisua pasatuko da).

Batzordeburua
Rakel Elu

Gizarte langilea
Maribi Bidasolo